

Fitxa

Eskabidearen Datuak

Erabilitako bidea: 012, Zuzenenan

Erabilitako hizkuntza: Euskara

Urraketa gertatu den hizkuntza: Euskara

Zioa: Autobus geltoki batean irteerak jakinaraziz bidaiariei zuzentzen zaizkien ahozko mezuak, gaztelania hutsean ematen dira, eta Argibide Zerbitzuan ere arreta gaztelania hutsean ematen da, erabiltzaileak informazioa euskaraz jasotzeko duen eskubidea urratuz.

Inzidentzia mota: Kexa

Urraketa mota: Harremana

Urraketa-harreman mota: Ahozkoa

Eremua: Pribatua - Jarduera profesionala

Ebazpenaren Datuak

Izapidetza: Bideratuta

Egoera: Itxita

Emaitza: Konpondu gabe

Erantzuna: Autobus Geltoki honi Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legeak eragiten dio, 38. artikulua arabera, administrazioari dagozkion zerbitzuak kudeatzeaz eta ustiatzeaz arduratzen delako. Hau horrela izanik, gure aldetik adierazi behar dugu sozietate hau 1996an eratu zela Geltokiaren sorrerarekin batera, egun indarrean dagoen legedia baino lehen. Bere sorreran giza talde batekin hasi ginen lanean, 10 urte beranduago sendotu den lantaldea. Baina Geltokiak eboluzionatu egin du eta hazi egin da eta ematen dugun zerbitzuaren baldintza bereziak direla medio, ez da batere bideragarria txanda bakoitzean euskaraz artatzeko gai den langile bat egotea. Hala ere, zuzendaritza honek, eskuragarri dituen neurriak guztiak hartzen ditu egoera hobetzeko, eta era honetan esan dezakegu, urtean 6 hilabetean zehar lantaldea handiagotzen dela eta kontratatzen diren langileek euskaraz aritzeko gaitasuna izaten dutela.

Fitxa

Eskabidearen Datuak

Erabilitako bidea: E-mail

Erabilitako hizkuntza: Euskara

Urraketa gertatu den hizkuntza: Euskara

Zioa: 50 CC baino txikiagoko motorretan ibiltzeko gida baimena lortu nahi du herritarrak. Ikastaroa euskaraz non hartu aurkitu du baina azterketa gaztelaniaz egin behar duela esan diote eta ikasliburuak ere soilik gaztelaniaz daude.

Inzidentzia mota: Kexa

Urraketa mota: Harremana

Urraketa-harreman mota: Idatzizkoa

Eremua: Publikoa - Estatuko administrazio orokorra

Erakundea: Estatuko Administrazio Orokorra

Ebazpenaren Datuak

Izapidetza: Bideratuta

Egoera: Itxita

Eraitza: Konpondu gabe

Erantzuna: Inork ez du eskatu azterketa euskaraz egiteko aukera eta ez dute erregistraturik horren inguruko kexarik. Testuliburuari dagokienez, Trafiko Buruzagitzak horren inguruan eskuduntzarik ez duela azaltzen dute, hori autoeskolei dagokielarik.